



Goitikoetxea: belaunaldien arteko bizitza 6-7

Casa Goitikoetxea: una vida entre generaciones 8-9

Udako kultur ekitaldiak | Actividades culturales de verano

Ruper Ordorika, Hiriberrin

Ekainaren 15ean, kontzertua emango du Artzibarko Hiriberrin lan berria aurkezten.

Antzerkia "Munduari itzulia 80 egunetan"

Uztailaren 27an iritsiko da Nagorera Sustrai Teatroaren haurrentzako antzerki proposamena.

"Artzibar dantzan" Patxi Labordarekin

Dantza tradicionalei buruzko hitzaldia eta tailerrak abuztuan Nagoren.

Ruper Ordorika en Villanueva

El próximo 15 de junio dará un concierto en Villanueva de Arce para presentar su nuevo trabajo.

Teatro "Munduari itzulia 80 egunetan"


La obra infantil en euskera de Sustrai Teatroa llegará a Nagore el 27 de julio.

"Artzibar dantzan" con Patxi Laborda

Charla y talleres en agosto en Nagore sobre las danzas tradicionales.

Korrika gure eskualdean

Korrika en la zona



Martxoan Korrika gure eskualdetik pasatu zen, Errrotik etorri, Aurizberri zeharkatu eta Aezkoara joan zen. Artzibarko Udalak, Lakorri emakumeen elkartarekin batera, kilometro bat erosi zuen, 298 zenbakiduna, Mezkirizko mendatearen igoeran kokatua. Korrika 21:00ak aldera pasatu zen eta dozenaka bat artzibartar korrika egin ondoren Garraldara joan ziren ogitartekoak jatera.

Artzibar ere, euskararen alde!

El pasado viernes 15 de marzo la Korrika pasó por esta zona, vino de Erro y pasó por Espinal dirección Valle de Aezkoa. El Ayuntamiento del Valle de Arce junto con la Asociación de mujeres Lakorri, compró un kilómetro, el 298, situado en la subida del puerto de Mezkiritz, poco antes de llegar al alto. La Korrika pasó hacia las 21:00 horas y unas decenas de artzibartarrak corrieron animosos/as, y después disfrutaron de unos merecidos bocatas en Garralda. **Artzibar ere, euskararen alde!**

Inskripzioak Nasuvinsaren etxebizitza erroldan

Nasuvinsatik alokairuko 4 etxebizitza eraikiko dira Nagoren. Oso garantzitsua da interesa duten pertsona guziek (orain edo etorkizunean) etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan sartzea eskatzea. **Alta ematera animatzen zaituztegu!**

www.navarra.es/home_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Censo+de+vivienda/

Inscripciones censo de vivienda de Nasuvinsa

Desde Nasuvinsa se van construir 4 viviendas en régimen de alquiler en Nagore. Es de suma importancia que todas las personas interesadas (ahora o en un futuro) soliciten la inclusión en el censo de demandantes de vivienda protegida. **;Os animamos a daros de alta!**

Artziko termak jendearentzat zabalik

Indusketa arkeologikoetan hamarkada bat eman ondoren, 2023an Aranzadi Zientzia Elkarteo taldeak, Artzibarko Udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, gune hori finkatu eta musealizatzeko lanak egin ditu. Gainera, aurten hitzaldiak eta bisita gidatuak antolatuko dira Aranzadiko arkeologoen eskutik. Joan den martxoaren 30ean lehen bisita gidatua egin zen termetara, gaztelaniaz eta euskaraz. Artzibarko termei eta haien material arkeologikoari buruzko monografía bat argitaratzea ere aurreikusten da, gaur egun aztertzen ari baitira.

Maiatzean, arkeología indusketak

Aranzadi Zientzia Elkarteak udaberrian eta udan egiten dituen jarduera nagusietako bat ikerketa arkeologikoak dira. Maiatzaren 16tik 22ra Artzin egindako indusketetan erromatarren garaitik Erdi Arroa igarotzeko unean sakondu da, Jaureriaren inguruan egindako zundaketen bidez.



Abiertas al público las termas romanas de Arce

Tras una década de excavaciones arqueológicas, durante el 2023 el equipo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en colaboración con el Ayuntamiento del Valle de Arce y el Gobierno de Navarra, ha realizado labores de consolidación y musealización de este enclave. Además, durante este año se prevén actividades como charlas y visitas guiadas de la mano de arqueólogas de Aranzadi. El pasado 30 de marzo se realizó la primera visita guiada a las termas, en castellano y en euskera. Está previsto también la publicación de una monografía sobre las termas de Arce y su material arqueológico, actualmente en fase de estudio.

En mayo, excavaciones arqueológicas

Las investigaciones arqueológicas son una de las actividades principales que desarrolla la Sociedad de Ciencias Aranzadi durante la primavera y el verano. Del 16 al 22 de mayo han tenido lugar las excavaciones en Artzi, en las que se ha profundizado en el momento de transición entre la época romana y la Edad Media a través de sondeos planteados en torno al Señorío.



Leherketak Saraguetan

Martxoan, NA-2382 Saragueta tokiko errepidearen eta NA-1720 Agoitz – Auritz tokiko errepidearen arteko bidegurutzean, 22+300 puntu kilometrikoan, ikuspena hobetzeko obrak egin dira. Errepidea behin baino gehiagotan moztuta egon da leherketen ondorioz, eta horrek bizilagunei eragozpenak sortu badizkie ere, etorkizunean inguru horretako errepideen erabiltzaileen bide-segurtasunaren onerako izanen da.

Voladuras en Saragiüeta

En el mes de marzo, se han realizado obras de mejora de visibilidad en el cruce la carretera local NA-2382 Saragiüeta / Saragueta con la carretera local NA-1720 Aoiz/Agoitz – Auritz/ Burguete a la altura del pk 22+300. La carretera ha estado cortada en varias ocasiones debido a las voladuras realizadas, con las molestias que ha causado al vecindario, aunque a futuro redundarán en una mejora de la seguridad vial de las personas usuarias de las carreteras de este entorno.

Artzibarrek ez ditu eraso sexistak onartzen

Artzibarko Udalak hiru informazio-kartel jarri ditu ibarreko sarrera nagusietan, eraso sexistak gaitzesteko. Seinale horietan honakoa irakur daiteke: Artzibarren ez dira eraso sexistak ezta LGTBIQ+fobikoak onartzentz.

Bertze urrats bat Artzibarren inolako erasorik onartzen ez dela ikusarazteko eta jendaurrean adierazteko.



Berdintasun zerbitzua Udalean

Artzibarko Udalak berdintasun zerbitzu berria du, Orotz-Betelu, Erroibarko eta Aezkoako udalekin batera. Maiatzetik aurrera, berdintasun teknikaria Ainhoa Arregui da, eta haren funtzio nagusia berdintasunaren arloko arauetara egokitzeko programa oso bat diseinatu eta garatzea da.

Beharra antzeman ondoren, udal horiek hitzarmen bat sinatu zuten 2023an, berdintasun teknikaria batera kontratatzen. Proiektua Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (INAI) dirulaguntzen deialdiari eta Gu Pirinioko lurrarde-taldearen koordinazioari esker egin ahal izan da.



Servicio de igualdad en el Ayuntamiento

El Ayuntamiento del Valle de Arce cuenta con un nuevo servicio de igualdad, que se comparte junto a los ayuntamientos de Orotz-Betelu, Valle de Erro y Valle de Aezkoa. Desde mayo, la técnica de igualdad es Ainhoa Arregui, cuya principal función es diseñar y desarrollar un programa completo de adaptación a las normativas en materia de igualdad.

Ante la necesidad detectada, estos municipios firmaron un convenio en 2023 para la contratación conjunta de esta figura profesional. Un proyecto que ha sido posible gracias a la convocatoria de subvención del Instituto Navarro de Igualdad (INAI) y la coordinación del equipo territorial de Gu Pirinioa.

El Valle de Arce no tolera las agresiones sexistas

El Ayuntamiento del Valle de Arce ha instalado recientemente en las entradas principales al valle tres carteles informativos en las que se muestra el rechazo y la condena a las agresiones sexistas. En dichas señales se lee: El Valle de Arce no tolera las agresiones sexistas ni LGTBIQ+fóbicas. Un paso más en el trabajo de visibilizar y manifestar públicamente de que en el Valle de Arce no se tolera ningún tipo de agresión.

Lakorriren festa Zanduetan

Fiesta de Lakorri en Zandueta



Martxoaren 9an, larunbatean, Lakorrik festa bat antolatu zuen Zanduetan Emakumearen Eguna ospatzeko. 60 pertsonak baino gehiagok hartzut zuten parte giro ederrean, eta Lakorriren 26 urteko ibilbideko argazki eta bideo proiekzioaz, bazkari goxo-goxoaz eta arratsaldeko dantzaz gozatu zuten.

Gainera, Lakorritik ibarreko emakume guztiek animatzen dituzte elkarteko kide egitera, "gure ibarrean parte hartzeko, proposamenak egiteko eta jarduerak antolatzeko. Topaleku ona da, aukera asko eskaintzen dituena, eta bakoitzak bere kolorea margotu dezake".

El sábado 9 de marzo Lakorri organizó una fiesta por el Día de la Mujer en Zandueta. Más de 60 personas participaron en un ambiente muy bonito, disfrutando de una proyección de fotos y videos de los 26 años de trayectoria de Lakorri, de una comida riquísima y de baile por la tarde.

Además, desde Lakorri animan a todas las mujeres del valle a asociarse, "participar, proponer, y desarrollar actividades en nuestro valle. Es un buen lugar de encuentro con muchas posibilidades y donde cada una puede pintar su color".

Lo primero agradeceros vuestra presencia aquí, en Zandueta, agradeceros la buena acogida que habéis hecho de este plan de pasar el sábado todxs aquí festejando nuestro dia, festejando a Lakorri, esta pequeña asociación de mujeres que empezó en el 1998 y que lleva 26 años de andadura.

Nos hace mucha ilusión que nos juntemos a compartirlo y a celebrarlo todxs aquí. Es una forma de cuidarnos y valorar lo que tenemos en este valle tan hermoso.

Comenzamos a juntarnos, a acompañarnos y con la excusa, merendar unos bizcochos riquísimos, organizar talleres, preparar la llegada del Olentzero cada año y sobre todo compartir un poquito de nuestras vidas e ilusiones. Han sido muchas mujeres las que hemos participado y disfrutado, algunas ya no están, otras van entrando ahora y así vamos manteniendo este espacio, en esta tierra que nos une y nos conecta con todas las mujeres que hoy habitamos en el valle.

Hemos preparado una proyección de fotos, compuesta por mujeres de este valle, de antes, de ahora, sin límite en el tiempo, mujeres que cuidan, que acompañan, que aprenden día a día y por supuesto que festejan y agradecen el espacio donde vivimos.

También os queremos animar a asociaros a Lakorri, a participar, proponer, y desarrollar actividades en nuestro valle. Es un buen lugar de encuentro con muchas posibilidades y donde cada una puede pintar su color.

Y poco más, agradeceros vuestra presencia, vuestro estar aquí y ojalá sigamos creando espacios de encuentro entre nosotrxs.

Con ganas de que lo pasemos bien.

Lakorri. 09-03-2024



Udal korporazio berria

Artzibarko Udaleko udalbatza honako kide hauek osatzen dute. Udalbatzan sartu den azken zinegotzia Carmen Cervantes Nagore da, 2024ko maiatzean, Clara Ruiz de Gaunak dimisioa eman ondoren.

Nueva corporación municipal

La corporación municipal del Ayuntamiento del Valle de Arce está compuesta por las siguientes personas. La última incorporación en el Ayuntamiento del Valle de Arce ha sido la de Carmen Cervantes Nagore en mayo de 2024, tras la dimisión de Clara Ruiz de Gauna.

Alkatea | Alcalde:

Javier Diez Huguet (*Artzibar Herri Taldea*)

Zinegotziak | Concejales/as:

Jon Apat Mina (*Concejos Unidos por Arce*)

Judit Cervantes Macaya (*Concejos Unidos por Arce*)

Juan José Echavarren Salvador (*Artzibar Herri Taldea*)

Javier Idiazabal Chorraut (*Concejos Unidos por Arce*)

Carlos Oroz Torrea (*Artzibar Herri Taldea*)

Carmen Cervantes Nagore (*Artzibar Herri Taldea*)

Nagoreko hondakin uren tratamendua hobetzea

Nafarroako Gobernuak eta Nilsak beriki aurkeztu dute Nagoreko araztegia handitzeko projektua, 2025ean egingo dena, 440.000 euroko inbertsioarekin. Baliabide biológico eta iragazien bidez, Nagoreko kontzejuko, Artziko Jauregiko eta bainu-guneetako hondakin-urak leheneratuko dira, aurreikusten den populazioaren hazkundea 40tik 544 biztanlera bitartekoan baita.

Mejora de tratamiento de aguas residuales de Nagore

El Gobierno de Navarra y Nilsa han presentado recientemente la ampliación de la depuradora de Nagore que se llevará a cabo en 2025 con una inversión de 440.000 euros. Regenerará por medios biológicos y filtrado las aguas residuales tanto del concejo de Nagore como del Palacio de Arce y las zonas de baño, ya que el crecimiento poblacional estimado es de los 40 a los 544 habitantes.



Goitikoetxea: belaunaldien arteko bizitza

Urdirozko Goitikoetxean Txabi Bados, Rita Perandrés eta Elur jaioberria bizi dira. Aurtengo otsailean Azok-Denda zabaldu zuten, ibarrak duela hamarkada batzuetatik ez duen zerbitzua eskainiz. Etxearen beheko solairuan dagoen establezimendu honek inguruko produktuak ditu, lokalak, artisau-produktuak, ontziratu gabeak eta ekologikoak.

Blanca Torrea duela 78 urte jaio zen Goitikoetxean, eta harrituta kontatzen du inoiz ez zuela Urdirotzen dendarik imajinatuko. Pozik dago, gainera, Elur txikia han jaio delako. Urdirozko Goitikoetxeko iragana, oraina eta etorkizuna, ibarrean bizi eta lan egitearen aldeko apustua.

Urdirozko Goitikoetxean sartu bezain laster, Blanca Torrea gogoratzan hasi da non zegoen hau, non zegoen hura. Etxea nola aldatu den ikusi du, baita hobetzeko eta bizigarriagoa eta abegikorragoa izateko egin dituzten obrak ere.

"Zer ongi atari hau, etxearen goiko aldera sartzeko! Lehen ez genuen eta zer hotza sartzen zen behetik!", dio. Blanca 24 urte zituen arte Urdirotzen bizi izan zen bere familiarekin, ezkonduta eta Hiriberrira bizitzera joan zen arte. Lehenago ere urte batzuk eman zituen Bordan, bere familiak azienda saldu zuenean. Goian, sukaldean, Rita, Txabi eta martxoaren 20an jaiotako Elur ditugu zain. "Ilusio handia egiten dit ni jaio nintzen etxe berean jaio izanak", dio Blanca, eta, aldi berean, Ritak irribarre egin du.

Blanca txikia zenean, bi familia bizi ziren Urdirotzen, 20 pertsona inguru guztira. Urdirotzen populazio maximoa 1900. urtean gertatu zen, 58 pertsonarekin, eta, ondoren, poliki-poliki jaisten joan zen, 1950-70eko hamarkadetan bailara osoan gertatu zen krisiraino, 39 pertsonatik 10era pasatuz, 1980an erroldatutako pertsonarik gabe geratu zen arte. Gaur egun 9 pertsona daude erroldatua.

Herria biztanlerik gabe geratu ondoren, urte askoan Goitikoetxea alokatu zuten eta Euskal Udaleku egoitza izan zen 1982tik 2005era. Udaleku horietatik ehunka pertsona pasatu dira, euskara eta natura uztartuz. Istorio, esperientzia eta biziaren anitz biltzen dituen etxea da. Ondoren, alokatzen jarraitu zuten,

nahiz eta pertsona gehienak ez ziren modu iraunkorrean etxeen bizi izan. Urdirotz errepide asfaltatua izan duen bailarako azken herrietako bat izan da, zehazki, 2012an.

"Joan den urtetik badugu Internet eta kale-argiak joan den urteko Errege Egunean biztu ziren lehen aldiz", dio Txabik.

Azokoop Mikrokooperatiba

Urtebete da Granadako eta Zizur Nagusiko Rita eta Txabik Goitikoetxea erostea erabaki zutela, 2019az geroztik bertan bizi izan ondoren. Han jarri dute martxan Azokoop mikrokooperatiba, bere bizi-proiektua, eta haren bidez ibarren alde egin eta ibarrean bizi nahi dute. Bere azken zerbitzua

Azok-Denda da, joan den otsailaren 24an ireki zena.

"Badakigu ibarrera itzuli nahi duen jendea dagoela; gure bizimodu da, baina ibarreko bizimodu errazten ere siatzen ari gara, hobeki bizi ahal izateko", dio Ritak.

Hasieratik, argi zuten "ibarrean bizitzeko eta lan egiteko" apustua. Denda ireki baino lehen, urtebetetx, etxez etxez banaketa zerbitzua izan zuten martxan, eta orain etxearen behealdea egokitu dute denda paratzeko. Elikadura-subiranotasuna eta hurbileko kontsumoa dira proiektuaren funtsezko zutabeetako bi: "Oso pozik gaude izaten ari den harrerarekin; badakigu biztanle gutxiko bailara dela, baina jendea etortzen ari da, eta, batez ere, ilusioa egiten digu behin baino gehiagotan etortzen direnean", diote Txabik eta Ritak. Oraingo, astean hiru egunetan irekitzen dute (astelehena, asteazkena eta larunbatetan), baina pixkanaka ordutegia zabaltzea gustatuko litzaieke eta kooperatibaren telefonoa (613 041 186) eskura dute beste ordutegi batean eroastera joan ahal izateko.

Txabi eta Rita

"Oso pozik gaude izaten ari den harrerarekin; badakigu biztanle gutxiko bailara dela, baina jendea etortzenda, eta, ilusioa egiten digu behin baino gehiagotan etortzen direnean"

Azok-Dendan inguruko produktuak, lokalak, solteko produktuak eta produktu ekologikoak eskaizten dituzte. Lakabeko ogia eta gaietak (enkarguz), Aurizberriko esnekiak, Orbaizeta, Luzaide eta Artaizko gaztak edo Ripodaseko lekaleak dira denda aurki daitezkeen eskualdeko produktu batzuk. Beste produktu freskoak ere enkarguz eska daitezke, fruta edo barazkiak kasu, eta laster Arterraren Baratzan Blai proiektuaren barazki saskiak eskainiko dituzte. *"Bizimodu eta zertaz bizi pixka bat nahastu genituen; etxea erosi genuenean*

argi genuen ez genuela hemen bizi eta Iruñean lan egin nahi", dio Ritak.

Badakite Urdirotz ez dela Artzibarko denda bat irekitzeko kokapenik onena, baina bere aukeren artean "arrisku gutxien" duena dela uste dute. *"Artzibarko parte-hartze prozesuaren diagnostikoan oinarritu ginen: etengabe agertzen zen autoa edozetarako hartu behar dela eta zerbitzurik ez dagoela".* Txabik eta Ritak gogorarazi dute, gainera, mikrokooperatibako baziideek %10eko deskontua dutela dendako erosketa guztietan, bai eta eskaizten dituzten beste zerbitzu batzuetan ere: lan-tresnak eta makineria, hala nola egurra arraitzeko makina, sasiak garbitzeko makina, orga, atoia, motoaitzurra eta baita inprimatze-zerbitzuak ere. *"Oraintxe bertan 10 baziide gara, eta gustatuko litzaiguke bailarako pertsona gehiagok bat egitea eta parte hartza: helburua ibarreko bizitza erraztea da".*

Urizko eta Arrietako dendak

Azok-Dendako bezeroetako bat Blanca da. Aldizka joaten da produktuak eroastera eta, batzuetan, fruta enkarguak egiten ditu. *"Inoiz ez nukeen pentsatuko jaio nintzen etxearen orain denda bat egon zitekeenik; duela urte batzuk pentsaezina zen gauza batzuk gertatu dira"*, dio Blancak irribarretsu.

"Noiztik ez dago dendarik Artzibarren?" galdu dio Ritak Blancari. Oso oroimen ona du: *"Arrieta eta Uritzen dendak egon ziren"*. Blancak gogoratzentz, txikia zenean, astoz eta biziakletaz joaten zela bailarako dendetara: *"Oroitzan naiz behin Uritzera bizikletan jaitsi nintzela, larruzko poltsa batekin, alforja gisakoa, eta erosketaren pisu handia sartu nionez, itzuleran ia erori nintzela, biziakletarekin eta erosketarekin"*,

Blanca Torrea

"Inoiz ez nukeen pentsatuko jaio nintzen etxearen orain denda bat egon zitekeenik; duela urte batzuk pentsaezina zen gauza batzuk gertatu dira"

gogoratzen du. Dendak familien etxeetan bertan zeuden eta etxeetan izaten ez ziren produktuak saltzen zitzuten: banilla galletak, ardoa, lekaleak, kafea, txokolatea, kakahueteak... Blancak gogoratzentz, Arrietako denda burdindegiko gaiak zitzuten eta txokolatea ere egiten zuten. *"Handiagoa zen eta gauza asko zeuden"*. Ez du zehazki gogoratzentz noiz itxi zitzuten dendak, baina familia asko hirira joan ziren garaian izan zen. *"Itxi egin ziren, eramaten zitzuten pertsonak adinekoak zirelako eta beste inork ez zuelako dendarekin jarraitu"*. Behin bailarako dendak itxita, herri handiagotara eroastera joaten ziren, normalean Agoitzera, eta merkatari ibiltari askok ere mota guztietako produktuak hurbiltzen zitzuten herri bakoitzera.

Blancak herrietako bizimodu nolakoa zen gogoratzentz, eta Rita harrituta geratzen da Urdirotzen eskola zegoela entzuten duenean. Inguruko herriekin ere harreman handia zuten: *"Saraguetarekin batez ere, hurbiltasunagatik"*. Garai hartan 250 ardi inguru izango zitzuten etxeen, eta gogoan du Mendeztegitik edo Amerikanorennetik etortzen zirela ardiak mozteria. Goitikoetxeen ere txierrak, oiloak eta behiak zitzuten.

Aziendaz gain, baratzean arto anitz ereiten zuten, batez ere tixerriei jaten emateko, nahiz eta noizean behin krispetak egiten zitzuten etxeen. Patata ohiko beste labore bat zen. Ritak eta Txabik etxe aurrean dute baratzea, eta aholkuak eskatzen diote Blancari, jakiteko zer barazki hazten diren ongi lur horretan. *"Urdirozko lurra gogorragoa da, buztintsuagoa, eta Hiriberrin baino eguzki gutxiago dago; lehen ez genituen orain baratzean jartzen diren horrenbeste gauza lantzen"*, gogoratu du. *"Horregatik ateratzen dira horren txikiak berenjenak! Arta erein beharko dut!"*, dio Ritak irribarretsu.

Bailarako errealitatea aldatu egin da hamarkada hauetan guztietan, baina badira oraindik ere lurraldetako horri bzia ematearen aldeko apustua egiten duten biztanle berriak, bizitzeko modu berriak sortuz. *"Eta txikiari, nolako mundua utziko diogu? 20 urte dituenean, nola egongo da bailara? Nola egongo da Urdirotz?"*, galdeztzen dio Ritak bere buruari.



Casa Goitikoetxea: una vida entre generaciones

En la casa Goitikoetxea de Urdiroz viven Txabi Bados, Rita Perandrés y la recién nacida Elur. En febrero de este año abrieron la tienda Azok-Denda, ofreciendo un servicio que desde hace décadas el valle no tiene. Un establecimiento en la planta baja de la casa que cuenta con productos de la zona, locales, artesanales, a granel y ecológicos. Blanca Torrea nació hace 78 años en Goitikoetxea, y cuenta, sorprendida, que jamás hubiese imaginado una tienda en Urdiroz. Está contenta, además, de que la pequeña Elur haya nacido allá. Pasado, presente y futuro de la casa Goitikoetxea de Urdiroz, una apuesta por vivir y trabajar en el valle.

Nada más entrar en la Casa Goitikoetxea de Urdiroz Blanca Torrea comienza a recordar: dónde estaba esto, dónde estaba aquello. Observa cómo ha cambiado la casa, poco a poco han ido mejorando los servicios y el aislamiento de la casa para hacerla más habitable y acogedora. “¡Qué bien con esta puerta para acceder a la parte de arriba de la casa!

Antes no teníamos y iqué frío entraba de abajo”, comenta. Blanca vivió hasta los 24 años en Urdiroz con su familia, hasta que se casó y se fue a vivir a Villanueva de Arce. Antes también pasó unos años en La Borda, cuando su familia vendió el ganado. Arriba, en la cocina, nos esperan Rita, Txabi y la recién nacida Elur, que desde el 20 de marzo habita la casa.

AZOK-DENDA

Horario:

Lunes y sábados: 10:30–13:30

Miércoles:

17:30–20:00

En otros horarios:

613 041 186

“Me hace mucha ilusión que haya nacido en la misma casa que yo nací”, dice Blanca, y a la vez, Rita sonríe.

Cuando Blanca era pequeña, en Urdiroz vivían dos familias, en total, unas 20 personas. El máximo de población de Urdiroz se produjo en 1900 con 58 personas, para después ir lentamente descendiendo hasta la crisis que se produjo en todo el valle en las décadas 1950–70, pasando de 39 a 10 personas y quedarse sin empadronadas en 1980. Actualmente, en Urdiroz hay 9 personas empadronadas.

Después de quedarse el pueblo sin habitantes, durante muchos años alquilaron la Casa Goitikoetxea y fue campamento de verano de Euskal Udalekuak de 1982 a 2005, por el que han pasado cientos y cientos de personas, uniendo el euskera y la naturaleza. Una casa que alberga muchas historias, experiencias y vivencias. Posteriormente, se siguió con el alquiler, aunque la mayoría de personas no vivieron de forma permanente en la casa. Urdiroz fue de los últimos pueblos del valle de tener acceso por carretera asfaltada, concretamente, en 2012. “Internet tenemos desde hace un año y las farolas se encendieron por primera vez el Día de Reyes del año pasado”, cuenta Txabi.

Microcooperativa Azokoop

Hace un año que Rita y Txabi, de Granada y Zizur Mayor de origen, aunque con varios años de residencia en el Valle de Arce, decidieron comprar la casa Goitikoetxea, tras haber vivido en ella desde 2019. Fue allí donde pusieron en marcha la Microcooperativa Azokoop, su proyecto de vida con el cual quieren vivir y trabajar por y

para el valle. Su último servicio es la tienda Azok-Denda que abrió sus puertas el pasado 24 de febrero. "Sabemos que hay gente que quiere volver a vivir al valle; es nuestra forma de vida pero también estamos intentando facilitar la vida en el valle y que se pueda vivir mejor", cuenta Rita.

Desde el principio, tenían claro su apuesta por "vivir y trabajar en el valle". Antes de la apertura de la tienda, durante un año tuvieron en marcha un servicio de reparto a domicilio, y ahora han acondicionado la parte baja de la casa para albergar la tienda. La soberanía alimentaria y el consumo de proximidad son dos de los pilares fundamentales del proyecto: "Estamos muy contentas con la acogida que está teniendo; sabemos que es un valle con poca población, pero está viniendo gente, y, sobre todo, nos ilusiona cuando vienen más de una vez", comentan Txabi y Rita. Por ahora, abren tres días a la semana (lunes, miércoles y sábados), pero poco a poco les gustaría ampliar el horario y tienen disponible el teléfono de la cooperativa (613 041186) para poder ir a comprar en otro horario.

Txabi y Rita

"Estamos muy contentas con la acogida que está teniendo la tienda; está viniendo gente, y, sobre todo, nos ilusiona cuando vienen más de una vez"

Ofrecen en Azok-Denda productos de la zona, locales, a granel y ecológicos. Pan y galletas de Lakabe (por encargo), lácteos de Espinal, quesos de Orbaizeta, Valcarlos y de Artaiz o legumbre de Rípodas son algunos de los productos de la zona que se pueden encontrar en la tienda. Otros productos frescos como fruta o verdura también se pueden pedir por encargo, y próximamente ofrecerán cestas de verdura del proyecto Baratzan Blai de Arterra. "Mezclamos un poco la forma de vida con cómo ganarse la vida; cuando compramos la casa teníamos claro que no queríamos

vivir aquí y trabajar en Pamplona", reconoce Rita.

Saben que Urdiroz no es la mejor localización para abrir una tienda en el Valle de Arce, pero sí la "menos arriesgada" dentro de sus posibilidades. "Nos apoyamos en el diagnóstico del proceso participativo del Valle de Arce: continuamente aparecía la necesidad de que hay que coger el coche para todo y de que no hay servicios". Txabi y Rita recuerdan que, además, las personas socias de la microcooperativa tienen un 10% de descuento en todas las compras de la tienda así como en otros servicios que ofrecen: herramientas de trabajo y maquinaria como la rajadora de leña, desbrozadora, carro, remolque, motoazada e incluso servicios de impresión. "Ahora mismo somos 10 socias y nos encantaría que más personas del valle se uniesen y formasen parte: el objetivo es facilitar la vida en el valle".

Tiendas en Uriz y Arrieta

Una de las clientas de Azok-Denda es Blanca, que acude regularmente a comprar productos y, a veces, realiza encargos de fruta. "Nunca hubiese pensado que en la casa donde nací ahora haya una tienda; han ocurrido unas cosas que eran impensables hace unos años", comenta con una sonrisa Blanca.

"¿Desde cuándo no hay una tienda en Arce?", le pregunta Rita a Blanca. Tiene muy buena memoria: "Hubo tiendas en Arrieta y en Uriz". Blanca recuerda cuando era pequeña ir en burra y en bici a las tiendas que había en el valle: "Me acuerdo una vez que bajé a Uriz en bici, con un bolso de cuero como alforja, y le metí tanto peso de la compra que a la vuelta casi me voy abajo, con la bici y la compra", rememora. Las

Blanca Torrea

"Nunca hubiese pensado que en la casa donde nací ahora haya una tienda; han ocurrido unas cosas que eran impensables hace unos años"

tiendas estaban en las propias casas de las familias y vendían los productos que habitualmente no había en los hogares: galletas de vainilla, vino, legumbre, café, chocolate, cacahuete.... En Arrieta, recuerda Blanca, tenían artículos de ferretería y también hacían chocolate. "Era más grande y tenían muchos artículos". No recuerda exactamente cuándo cerraron las tiendas, aunque coincide con la época en que muchas familias se fueron a la ciudad. "Se fueron cerrando porque las personas que las llevaban eran mayores y nadie más siguió con la tienda". Una vez cerradas las tiendas del valle, iban a comprar pueblos más grandes, a Aoiz, habitualmente, y también hubo muchos comerciantes ambulantes que acercaban todo tipo de productos a cada pueblo.

Blanca recuerda cómo era antes la vida en los pueblos y Rita se queda sorprendida cuando escucha que había escuela en Urdiroz. También tenían mucha relación con los pueblos vecinos: "Sobre todo con Saragüeta, por cercanía". En aquel entonces en su casa tendrían unas 250 ovejas y recuerda como venían de Casa Mendeztegi o Casa Americano a esquilar. Además de las ovejas, en Goitikoetxea tenían cerdos, gallinas y vacas.

En la huerta sembraban mucho maíz, sobre todo para dar de comer a los cerdos, aunque de vez en cuando hacían palomitas en casa. La patata era otro cultivo habitual. Rita y Txabi tienen la huerta en frente de su casa, y le piden consejo a Blanca para saber qué hortalizas crecen bien en esa tierra. "La tierra de Urdiroz es más dura, más buztin, y hay menos sol que en Villanueva; antes no cultivábamos tantas cosas como se ponen ahora en la huerta", recuerda. "Por eso me salen tan pequeñas las berenjenas, ¡tendré que sembrar maíz!", ríe Rita.

La realidad del valle ha cambiado en todas estas décadas pero sigue habiendo nuevos habitantes que apuestan por darle vida a este territorio, creando nuevas formas de vivir. "Y a esta pequeña, ¿qué mundo le vamos a dejar? Cuando tenga 20 años, ¿cómo estará el valle? ¿Cómo estará Urdiroz?", se pregunta Rita.

Artzibarko kultur jarduerak | Actividades culturales Valle de Arce

| NOIZ CUÁNDO | JARDUERA ACTIVIDAD | NON DÓNDE |
|------------------------------|---|---|
| EKAINA JUNIO 15 20:00 | Musika Música: RUPER ORDORIKA – 'Bakarka bi' | Hiriberri-Arzibar Villanueva de Arce |
| UZTAILA JULIO 20 19:00 | Dokumentala Documental: 'Contrabando y evasión en el Pirineo Navarro' Organizado por Auñamendi zinemak antolatuta. | Nagore |
| 27 19:00 | Antzerkia Teatro: ERIZ ALBERDI (Sustrai taldea) "Munduari itzulia 80 egunetan". Haurrentzako público infantil (Euskaraz en euskera) | Nagoreko frontoia Frontón de Nagore |
| ABUZTUA AGOSTO 2 19:00 | 'Arzibar dantzan: tradiziozko dantzarantz': PATXI LABORDA Hitzaldia Charla: (Gaztelaniaz en castellano) 'Gureak ote? Betikoak omen?' '¿Son nuestras? ¿Son de siempre?' Tailerrak Talleres: (Gaztelaniaz en castellano) | Arzibarko Udalean Ayto. de Arce |
| 6 19:00 20:30 | • 'Gure historia ezagutzea dantzatzen. Bertako Ingurutxoari begirada bat'. 'Conocer nuestra historia bailando. Una mirada al Ingurtxo de la zona'. • 'Jaietan dantzan, plazan dantzatzeko aukera izan dezagun'. 'Bailando en fiestas para que podamos bailar en la plaza'. Izen emateko epea aurrerago iragarriko da. El plazo de inscripción se anunciará más adelante. | Nagoreko frontoia Frontón de Nagore |
| 13 19:00 20:30 | | Nagoreko frontoia Frontón de Nagore |
| 3 17:00 19:00 | Haurrentzako zirko jarduerak eta jolasak – ZIRKOLORETSUA (euskaraz en euskera) | Nagore |
| 5-9 11:00 13:00 | Haurrentzako jolas eta tailerrak (4-12 urte años, euskaraz) Izena emateko epea: ekainaren 19a arte Plazo de inscripción: hasta el 19 de junio Info+: Euskara Zerbitzu 672 08 30 20 – euskara@burguete.es | Nagore |
| 10 20:00 | Musika Música: ALARMA MOREA | Azparren |
| 31 19:00 | Antzerkia Teatro: La Piel Producciones – 'Liberarse. Reflexiones de armario'. Helduentzako Público adulto (Gaztelaniaz en castellano) | Zandueta |
| IRAILA SEPTIEMBRE 7 19:00 | Musika Música: CLAUDIA BESNÉ – 'Arpa mendeetan zehar' | Arzikoi baseliza Ermita de Arce |
| 28 19:00 | Hitzaldia Charla: AMAIA NAUSIA 'Sorginak euskal kulturan: errealityte historikotik gaur egungo mitora'. 'Las brujas en nuestra cultura: de la realidad histórica al mito actual'. (Gaztelaniaz en castellano) | Nagore |
| URRIA OCTUBRE 26 19:00 | Antzerkia Teatro: ILUNA Producciones – 'Ovejas negras' Helduentzako Público adulto (Gaztelaniaz en castellano) | Zandueta |

EKAINA | JUNIO

Ruper Ordorika Hiriberri-Artzibarren

Ekainaren 15ean, Ruperrek kontzertua emango du Hiriberrin, bere lan berria, 'Bakarka bi', aurkezteko. Emanaldian bere ibilbideko gai ezagunenetako batzuk abestuko ditu. 40 urtetik gorako ibilbideren eta hogeい diskoko baino gehiagoren ondoren, asko dira lehen emanaldian (*Bakarka*) jendeak faltan bota zituen abestiak.

Hain zuzen ere, bigarren lan honekin, 24 dira Ruperrek formatu horretan sartzen dituen gaiak, non, naturaltasunez, abestiaren funtsa bilatzen duen. CDan aurkezen da (*Bakarka bi*), 12 abestirekin; besteak beste, *Erruduna*, *Zaindu maite duzun hori edo Zaldiak negarrez*.



Ruper Ordorika en Villanueva de Arce

El próximo 15 de junio Ruper dará un concierto en Villanueva de Arce para presentar su nuevo trabajo, 'Bakarka bi', en el que repasa en solitario algunos de los temas más reconocibles de su trayectoria. Tras más de 40 años de oficio y más de veinte discos, muchas son las canciones que el público echaba en falta en la primera entrega (*Bakarka*). En concreto, con este segundo trabajo, ya son 24 los temas que Ruper incluye en este formato con el que, sin artificios, busca la esencia de la canción. Se presenta en CD (*Bakarka bi*) con 12 canciones, entre las que se encuentran *Erruduna*, *Zaindu maite duzun hori o Zaldiak negarrez*.

UZTAILA | JULIO

Pirinioetako kontrabandoari buruzko dokumentala

Datorren **uztailaren 20an, Nagoren**, Auñamendi Zinemarekin elkarlanean, 'Contrabando y evasión en el Pirineo navarro' dokumentala proyectatuko da. Dokumentalak 2021. eta 2022. urteetan grabatu ziren kontrabandisten benetako istorioak eta testigantza biltzen ditu. Testigantzen bidez, aurre egin beharreko arriskuak, merkantziak eta zer-nolako ganaduarekin lan egiten zuten, baita kontrabandoa egitera bultzatu zitzuten arrazoiak ere, eta premia ekonomikoa da nagusia.

Documental sobre el contrabando en el Pirineo

El próximo **20 de julio en Nagore**, en colaboración con Auñamendi Zinema, se proyectará 'Contrabando y evasión en el Pirineo navarro'. El documental recoge historias y testimonios reales de los propios contrabandistas, que se grabó durante los años 2021 y 2022. A través de los testimonios cuentan los peligros a los que se enfrentaban, las mercancías y el ganado con los que trabajaban, así como los motivos que les llevaron a practicar el contrabando, siendo el principal la necesidad económica.

Familientzako antzerkia: 'Munduari itzulia 80 egunetan'

Sustrai taldeak haurrentzako antzerki emanaldia aurkeztuko du **uztailaren 27an, larunbatean, Nagoren**. Hiru urtetik gorako haurrentzat pentsatuta dago, eta sinopsisak dio Passeportout-ek (Eriz Alberdi) milaka lan egin dituela bere bizitzan. Gaur egun, garbiketa lanetan ari da, baina nola kontatu? Zergatik ez zabor-poltsekin edo erratzekin, zoru-garbigailuarekin, trapuekin, paperontziekin edo eskura duzun beste edozerekin? Hori da uztalean Sustrai taldearen eskutik Artzibarrera irtsiko den haur eta familientzako obraren berezitasuna.

Teatro familiar: 'Munduari itzulia 80 egunetan'

La compañía Sustrai presentará el **27 de julio, sábado, en Nagore**, la obra teatral infantil *Munduari itzulia 80 egunetan*'. Está pensada para niños y niñas mayores de 3 años y la sinopsis cuenta que Passeportout (Eriz Alberdi) ha tenido miles de trabajos en su vida. Hoy en día, trabaja en labores de limpieza. Pero, ¿cómo contarla? ¿Por qué no con bolsas de basura o escobas, fregona, trapos, papeleras o cualquier cosa que tenga a mano? Esta es la singularidad de la obra infantil y familiar de Sustrai Teatroa que llegará al Valle de Arce el próximo mes de julio.

ABUZTUA | AGOSTO

Oporraldia euskaraz gozatzeko eskaintza

Euskaraz eskolatuak diren 3-12 urte bitartekoentzako eskaintza da, helburu nagusia duena aisialdi giroan haurren artean euskararen erabilera sustatzea, udako oporraldian euskararekiko lotura eten ez dezaten.

Jarduera hauei esker hizkuntza praktikatuko dute euskaraz egiteko ohitura dutenek baita ohiturarik ez dutenek ere, denek elkarrekin, testuinguru informal batean. Hartara, 5 egunetan eta bi orduz hainbat jarduera egiteko aukera izanen dute: jolasak, eskulanak, ibilalditxoak, eta abar. Hori guztia giro atseginean eta euskaraz, zeren hor komunikatzeko beharrezkoak dituzten hitzak eta esamoldeak barneratzea errazago lortuko baitute, jolasak delako tresnarik egokiena horiek guztiak oharkabeen garatzeko.

Izena emateko epea ekainaren 19an bukatuko da eta informazio gehiago Euskara Zerbitzuan eskuratu ahal da: **672 08 30 20 – euskara@burguete.es**

Actividades para disfrutar en euskera en verano

Se trata de una oferta dirigida a niños y niñas de entre 3 y 12 años escolarizados en euskera, cuyo objetivo principal es fomentar el uso del euskera entre los niños y niñas en el ámbito del ocio durante las vacaciones de verano.

Gracias a estas actividades de ocio los niños/as disfrutan jugando con sus amigas/amigos y, de este modo, practican el idioma tanto los que lo utilizan habitualmente como los que no tienen costumbre. Durante 5 días y 2 horas diarias se llevarán a cabo actividades como juegos, manualidades, paseos, etc. Todo ello en un ambiente lúdico y en euskera, ya que, sin duda, el juego es la mejor herramienta para fortalecer la relación y comunicación con los demás.

El plazo de inscripción finaliza el 19 de junio. Más información en el Servicio de Euskera:
672 08 30 20 – euskara@burguete.es

Artzibar dantzan: hiru saio Patxi Labordarekin

Patxi Laborda dantzaria, dantza-maisua, koreografoa, gidoilaria eta dantza tradicionalaren sustatzailea da, eta urteak daramatzatza helduentzako dantza tradicionaleko irakasle gisa. Hurrengo **abuztuaren 2an, 6an eta 13an Nagoren** izanen da dantzen inguruari mintzatzen eta tainerak egiten. ‘*Gureak ote? Betikoak omen?*’ izenburupean, hitzaldia emango du dantzen inguruari, gazteleraez. Bertan, euskal dantzen inguruko hainbat mito desegiteko aukera ederra izango da. Bestetik, bi tainer emanen ditu: ‘*Gure historia ezagutzea dantzatzen. Bertako Ingurutxoari begirada bat*’ eta ‘*Jaietan dantzan, plazan dantzatzeko aukera izan dezagun*’. Labordaren helburua da modu errezean dantzen ikasten, edonorendako ereduak bilatzen jaietan plazan dantzatzeko aukera izan dezagun. Tainerara izena emateko epea aurrerago iragarriko da.



Artzibar dantzan: tres sesiones con Patxi Laborda

Patxi Laborda es bailarín, maestro de baile, coreógrafo, guionista y promotor de la danza tradicional, y lleva años como profesor de danza tradicional para adultos. Los próximos días **2, 6 y 13 de agosto estará en Nagore** hablando sobre las danzas y realizando talleres. Bajo el título ‘*¿Son nuestras? ¿Son de siempre?*’, ofrecerá una charla sobre las danzas tradicionales en castellano. Será una buena ocasión para desmontar varios mitos en

torno a las danzas vascas. Por otro lado, impartirá dos talleres: ‘*Conocer nuestra historia bailando. Una mirada al Ingurutxo de la zona*’ y ‘*Bailando en fiestas para que podamos bailar en la plaza*’. El objetivo de Laborda es aprender a bailar de forma sencilla, buscar modelos para todos los públicos para que durante las fiestas podamos bailar en la plaza. El plazo de inscripción al taller se anunciará más adelante.



Sustraiek eta musika estiloak berak nahasketaz berezia bihurtzen dute. Las raíces y el propio estilo musical hacen que la mezcla sea particular.

Alarma Morea: rumba euskaraz Azparrenen

Emakumeek osatutako euskarazko rumba talde hau 2019an hasi zen Zumarragan. Musikaren munduan eta gizartean gertatzen den genero-desberdintasunari aurre egiteko, letrak eta melodiar erabiltzen ditu, kontzientziak lantzeko eta musikaren bidez espazioak berreskuratzeko. Euskaraz sortzea, euskara erabiltzea eta zabaltzea da taldearen beste helburuetako bat. **Abuztuaren 10ean Azparrenen** ikusteko aukera izango dugu.

Alarma Morea: rumba en euskera en Azparren

Este grupo de rumba en euskera formado por mujeres inició su andadura en Zumárraga en el año 2019. Para hacer frente a la desigualdad de género que se da en el mundo de la música y en la sociedad, utiliza letras y melodías con el objetivo de trabajar conciencias y recuperar espacios a través de la música. Crear en euskera, utilizar y difundir el euskera es otro de los objetivos del grupo. Tendremos la oportunidad de verlas el día **10 de agosto en Azparren**.

'Liberarse': armairuko gogoetei buruzko antzerkia

Datorren **abuztuaren 31n**, Zanduetan, La Piel Producciones konpainiak 'Liberarse' antzerkia aurkeztuko du, sexu askatasunaren eta identitatearen aldeko oda. Sexu-anitzasuna umoretik eta errespetutik jorratzen duen antzezpen komikoa da; ikuskizunak lau bloke independente eta antzezpenerako propio konposatutako abesti bat ditu. Publiko ororentzako sortutako antzerki proposamena da.

Ricardo eta Vanesa leku bero eta bigun batean daude. Oso erosu sentitzen den jendez betetako leku hori. Inoiz ateatzeari uzten ez zaion leku hori... Eta zergatik ez gara irteten? Askatasun sexualari eta identitateari buruz sortutako lana. Noizbait beren izatean giltzapetuta egon diren, dauden edo egongo diren pertsona guztiengatik, gizartearen onarpena bilatz eta egunero sufritu zuten guztiengatik, gizartearen



'Liberarse': teatro sobre reflexiones de armario

El próximo **31 de agosto en Zandueta** la Compañía La Piel Producciones presentará el teatro 'Liberarse', una oda a la libertad sexual y a la identidad. Es una representación cómica que trata la diversidad sexual desde el humor y el respeto; el espectáculo consta de cuatro bloques independientes y una canción compuesta ex profeso para la representación. Es una propuesta teatral está concebida para todos los públicos.

Ricardo y Vanesa se encuentran en un lugar cálido y mullido. Ese lugar lleno de gente que se siente muy cómoda en él. Ese lugar del que nunca se deja de salir... ¿Y por qué no salimos? Una oda a la libertad sexual, a la identidad, un soplo de aire fresco. Por todas las personas que alguna vez estuvieron, están o estarán encerrados en su propio ser, buscando la aceptación de la sociedad, luchando día a día por todos los que sufrieron.

IRAILA | SEPTIEMBRE



Claudia Besné: arpa kontzertua Artziko elizan

Claudia Besné irailaren 7an arituko da Artziko Santa María ermitan. Musikan adituek interpretatzale bikain eta sentikor gisa deskribatu dute, eta, haien iritziz, bere instrumentuaren ezagutza tekniko aparta dauka, baita proiekzio handia nazioartean, gaztea bada ere. Ordu beteko kontzertua izanen da, non entzuleek hain ezaguna ez den musika-tresna honen garapena ikusi ahal izango baitute, gure erreperiorioko klasiko handien laguntzarekin.

Kontzertuaren hasieran instrumentua erakutsiko da, eta haren ezaugarriak aipatuko dira, hala nola soken kolorea eta pedalen funtzioa. Gainera, bis gisa, instrumentuak jendearentzat eragin ditzakeen hainbat efektu erakusten dituen obra bat sartuko da.

Claudia Besné: arpa en la ermita de Arce

Descripción por autoridades musicales como una intérprete notable y sensible, profundamente musical y con un extraordinario dominio técnico de su instrumento y una gran proyección internacional a pesar de su juventud, Claudia Besné actuará el **7 de septiembre en el inmejorable marco de la ermita Santa María de Arce**. Su propuesta es un concierto de 60 minutos, donde el público pueda apreciar el desarrollo de este instrumento no tan conocido, con la ayuda de los grandes clásicos de nuestro repertorio.

Al comienzo del concierto se mostrará el instrumento y se mencionará sus características como el color de las cuerdas y función de los pedales. Además, como bis se incluirá una obra donde se pueda mostrar diversos efectos del instrumento impactantes para el público.

URRIA | OCTUBRE

Hitzaldia Nagoren: Sorginak euskal kulturan

Amaia Nausia Pimoulierrek hitzaldia emango du irailaren 28an Nagoren, ‘Sorginak euskal kulturan: errealitate historikotik gaur egungo mitora’. Haren ikerketak Lehen Aro Modernoko emakumeen bizitzeko, pentsatzeko eta sentitzeko moduak ulertzea du ardatz. Sorginkeriari, amatasunaren irudiari edo emakumeen bazterketari buruzko artikuluak artigaratu ditu.

Historian zehar feminitatearen idealak eta ideal hori apurtzen ausartzen ziren ‘desbideratu’ haien jasandako doktrinamendua ulertzea izan da bere ahaleginak handienetako bat. Bere lan zientifikoak Eusko Ikaskuntzan duen jarduera profesionalarekin uztartzen du, bertan proiektuen arduraduna baita.



Charla sobre las brujas en nuestra cultura en Nagore

Bajo el título '*Las brujas en nuestra cultura: de la realidad histórica al mito actual*' la historiadora **Amaia Nausia Pimoulier**, ofrecerá una charla el **28 de septiembre en Nagore**. Sus investigaciones se centran en comprender los modos de vivir, pensar y sentir de las mujeres de la primera Edad Moderna. Ha publicado artículos sobre las brujas, la imagen de la maternidad o la marginación femenina.

Comprender el ideal de feminidad a lo largo de la Historia así como el adoctrinamiento sufrido por aquellas “descarriladas” que osaban romper con dicho ideal, ha sido uno de sus mayores esfuerzos. Combina su labor científica con su actividad profesional en Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos, donde es responsable de proyectos.

Ovejas Negras: poesía feminista Zanduetan

'Ovejas Negras' emakumeek egindako poesia hispanoamerikarraren ahots garrantzitsuenak biltzen dituen poesia feministako ikuskizuna da, eta XX. eta XXI. mendeetan genero-arauak eta -estereotipoak desafiatu dituztenak nabarmenzen dira. Ikuskizun honek literaturako 'ardi beltzen' ahotsak ikusarazi nahi ditu, beren garaiko arauak eta konbentzioak jarraitu ez dituztenak, eta poesiaren bidez berdintasunaren eta justizia sozialaren alde borrokatu direnak.

Poesia dramatizatuaren eta musikaren bidez, 'Ovejas Negras' taldeak Hispanoamerikako literaturan ahotsaren garrantzia eta emakumeen presentzia gogoeta egitera gonbidatzen ditu ikusleak, emakume haien hitzek gaur egun ere oihartzun handia dutela eta garrantzitsuak izaten jarraitzen dutela ohartaraziz. Publikoa bidaia hunkigarri batean murgilduko da, hainbat idazleren hitzen bidez: Dulce Chacón, Mere Echagüe, Gloria Fuertes, Dulce María Loinaz, Elvira Sastre, Guisela López, Jhoana Patiño, Rosa María Roffiel, Gioconda Belli, Ida Vitale, Carolina Coronado, María Teresa León, Marianela Saavedra, Concha Méndez eta Maya Angelou, besteak beste. Heldu den **urriaren 26an izanen da Zanduetan.**

Ovejas Negras: poesía feminista en Zandueta

'Ovejas Negras' es un espectáculo de poesía feminista que reúne las voces más importantes de la poesía hispanoamericana hecha por mujeres, destacando aquellas que han desafiado las normas y estereotipos de género a lo largo de los siglos XX y XXI. Este espectáculo busca visibilizar las voces de las «ovejas negras» de la literatura, aquellas que no han seguido las normas y convenciones de su época, y han luchado por la igualdad y la justicia social a través de la poesía.

A través de la poesía dramatizada y de la música, 'Ovejas Negras' invita a reflexionar sobre la importancia de la voz y la presencia de las mujeres en la literatura hispanoamericana, y cómo sus palabras siguen resonando y siendo relevantes en la actualidad. El público será llevado en un viaje emocionante y conmovedor a través de las palabras de escritoras como Dulce Chacón, Mere Echagüe, Gloria Fuertes, Dulce María Loinaz, Elvira Sastre, Guisela López, Jhoana Patiño, Rosa María Roffiel, Gioconda Belli, Ida Vitale, Carolina Coronado, María Teresa León, Marianela Saavedra, Concha Méndez, Maya Angelou, entre otras. Será el próximo **26 de octubre en Zandueta.**



Artzibarko fruta-arbolak berreskuratzea

Arrea elkarteko agroekologikoak eta Nafarroako Hazien Sareak Landatutako Biodibertsitate lan bat egin dute Pirinioetan, fruta-arbolentokiko barietateak berreskuratzeko eta balioa emateko. Artzibarren informazioa jaso dute Arrieta, Hiriberrin, Lusarretan, Saraguetan eta Nagoren. Buletin bakoitzean herri bati buruzko informazioa argitaratuko dugu:


Lusarretan fruta-arbolak aurkitu dituzte bi etxetan, horretarako erabili den baratze batean eta zelai batean. Aurkitu diren fruta-arbolak neguko udare bat, bi aranondo mota, urdina eta klaudia, eta sagarrondo batzuk dira.

Recuperación de frutales

La asociación agroecológica Arrea y la Red de Semillas de Navarra han llevado a cabo un trabajo de Biodiversidad Cultivada en el Pirineo con el objetivo de recuperar y poner en valor variedades locales de frutales. En el Valle de Arce han recogido información de Arrieta, Villanueva de Arce, Lusarreta, Saraguetta y Nagore. En cada boletín publicaremos información de un pueblo:

En **Lusarreta** se han encontrado frutales en dos casas. En una huerta y en un campo que ha sido utilizado con este fin. Los frutales que se han localizado son una pera de invierno, dos clases de ciruela, azul y claudia y varios manzanos.

Artzibarko erromeria | Romería del Valle de Arce



Ba al zenekien...

**Artzibarko herririk gardiena
Adasa izan zela, 1040
metroko altueran? XV.
mendetik aurrera hutsik
geratu zen eta XIX. mendean
Oroz Betelu izatera pasa zen.**



¿Sabías que...

**el pueblo más alto del valle
de Arce fue Adasa a 1040
metros de altitud?** A partir
del siglo XV fue despoblado y
en el siglo XIX pasó a ser de
Oroz Betelu.

ARTZIBARKO JAIAK FIESTAS DEL VALLE

EKAINA | JUNIO

16-17 > Azparren
29 > Imizkotz | Imizcoz

UZTAILA | JULIO

26-27 > Urdirotz | Urdiroz

ABUZTUA | AGOSTO

1. asteburua | 1º fin de semana:
Artzibarko eguna | Día del Valle
3. igandea | 3º domingo:
Uritz | Uriz
4. asteburua | 4º fin de semana:
Saragüeta/Saragüeta

IRAILA | SEPTIEMBRE

2. asteburua | 2º fin de semana:
Villanueva | Hiriberri
3. asteburua | 3º fin de semana:
Arrieta
4. asteburua | 4º fin de semana:
Lusarreta

OCTUBRE | URRIA

1. asteburua | 1º fin de semana:
Nagore

NOVIEMBRE | AZAROA

11 > Gorraitz | Gorraiz

DICIEMBRE | AZAROA

13 > Lakabe

Hurrengo buletinean idatzi nahi
baduzu edo zure herriko ekimen edo
jarduera bat bidali nahi badiguzu
zabaltzeko, honako helbide honetara
idatz diezagukezu:
auzolan@valledearce.com

Si quieras publicar un escrito en el
próximo boletín o quieres mandarnos
para difundir un evento o actividad de
tu pueblo, puedes escribirnos a:
auzolan@valledearce.com



Artzibarko Udala | Ayuntamiento del Valle de Arce

Ordutegia | Horario: 8:00 - 14:00 h.

Asteartero eta hilabeteko 1. ostegunean eta 3., 4. eta 5. ostiraletan.
Los martes y 1º jueves y 3º 4º y 5º viernes de mes.

San Julián kalea Z/G | Calle San Julián S/N
31438 Nagore
948 790 398 · ayuntamiento@valledearce.com
www.valledearce.com



Batu Whatsappeko kanalera!
¡Únete al canal de Whatsapp!

